



17.ZIRKULARRA

2020-21 Denboraldia

1.ERREGIONALEKO LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioak, aurtengo denboraldiko 1.Erregionalaren lehiaketa antolatatu du, honela:

1) KLUB PARTAIDEAK

1 TALDEA	2 TALDEA	3 TALDEA
1 BEHOBIA C.D.	1 SANPEDROTARRA F.E	1 EUSKALDUNA S.D.
2 DUNBOA EGUZKI C.D.	2 TRINTXERPE C.D.	2 OSTADAR S.K.T.
3 LANDETXA K.T.	3 ANTIGUA LUBERRI K.E.	3 LENGOKOAK K.E.
4 MARIÑO C.D.	4 IRAULI BOSTEKO K.K.	4 VASCONIA C.D.
5 TOURING KE	5 ASOLEUS C.F.	5 AMARA BERRI K.E.
6 ALLERRU K.J.K.E	6 SPORTING DE HERRERA	6 IKUSGARRI F.C.
7 ORERETA KAFEIA, F.C.	7 DONOSTIAKO KALEREN LAGUNAK	7 ASTIGARRAGAKO MUNDARRO FKE
	8 AXULAR K.K.E	
4 TALDEA	5 TALDEA	
1 ANAITASUNA C.D.	1 ALOÑA MENDI K.E.	
2 IKASBERRI K.E.	2 ARETXABALETA K.E. UDA	
3 UROLA K.E.	3 BERGARA K.E.	
4 LAZKAO K.E.	4 EIBARTARRAK F.T.	
5 SEGURA K.E.	5 ELGOIBAR C.D.	
6 INTXURRE K.K.E.	6 URKI C.D.	
7 BILLABONA K.E.	7 MUTRIKU F.T.	
	8 ZUMAIAKO F.T.	

2) LEHIAKETA SISTEMA

1.Erregionaleko Liga txapelketa **37 taldek** osatzen dute, 8 ekipoko bi multzotan eta 7 ekipoko hiru multzotan banatuta. Bi fasetan jokatzen da: puntuen bidez eta bi itzulietara (14 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federakuntzako Arautegi Orokorreko xedapenak jarraituko dira.

A.Igoera Fasea

Talde bakoitzeko bi lehenak (2x5=10) eta hirugarren bi hoberenak (guztira 12) sei ekipoko 2 taldetan banatuko dira fase hau jokatzeko, bi itzulietara (10 jardunaldi).

Lehen lau sailkatuek dependentzia edo fideltasuna ez dutenak Gorengoan Mailara igoko dira.

Gertukotasun arazoengatik modu razionalean geografikoki bi talde edo gehiagotan banatuta dauden kategorietan honako legea beteko da: talde batean zein bestean eskubide berdinak eta aukera berdinak.

Gure lehiaketetan indarrean dagoen irizpide honen arabera, igoera edo kategorian geratze eskubideak **sailkapenean postu berean** geratu direnen artean jolastuko dira, beti ere hurrenezko goragoko kategorietan menpeko taldea edo talde babestua duten horiek alde batera utzita. Hau da, kasu guztietan, **lehen sailkatuak, bigarren sailkatuak, hirugarren sailkatuak** eta horrela segida jarraituz partidak beste taldean **postu berdina betetzen duten taldeen aurka jolastuko dituzte.**

B.Gipuzkoako Kopa:

Besteek Gipuzkoako kopa jokatuko dute.

3) IRAUPENA ETA ALDAKETAK

90 minutu; bost aldaketa eta gehienez 7 ordezko eserlekuan.

4) ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek, posible izango dute, beraien partidua larunbata arratsaldera aurreratzea, 15:30etik aurrera, aurkakoaren baimenik gabe.

5) DIZIPLINA ARAUDIA

Lehiaketa hau arautzeko Euskadiko Futbol Federakundeko Diziiplina Araudia erabiliko da, eta sortzen diren gorabeheretan, lehendabizi, Gipuzkoako Futbol Federazioko Diziiplina Batzordeak erabakiko du, eta bigarrenez, Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordeak

6) COVIDren ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren lehiaketak garatzeko aplikazio-protokoloa.

Erregional 1. Maila bi faseetan jokatuko du.

Lehiaketan gerta daitezkeen gorabeherak aurreikusi ezinak direla kontuan hartuta eta COVID-19 aren ondorioz ezarritako protokoloek eragin ditzakeen konfinamenduak direla eta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren jarduneko Zuzendaritza Batzordeak honako hau erabaki du:

1.- Lehentasuna ematea lehen faseko partida guztiak amaitzeari, eta, beharrezkoa izanez gero, egutegien datak luzatzea, lehiaketa bi fasetan jokatzen duten kategorian guztietan.

2020ko irailaren 17ko Batzar Orokorrean proposatu eta onartutako lehen faseko lehiaketen egutegiak partidurik gabeko asteburu edo jaiegun batzuk aurreikusten ditu, eta horri esker, pandemiagatik atzeratutako norgehiagokak jokatu daitezke.

2.- Lehenengo fasea amaitzea lehenetsi gabe ere ezin bada amaitu, honako hau xedatu da:

2.1.- Lehen fasea.

a) Talde guztiek ezin badute fase honen % 70 jokatu, denboraldia baliogabetzat joko da.

b) Talde guztiek lehen fasearen % 70 gutxienez joka badezakete, baina guztiek ezin badute fase horren % 100 jokatu, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokatutako partiden artean lortutako puntu kopurua, fase honetako behin betiko sailkapenak zehazteko. Berdinketa gertatuz gero, berdinduta dauden taldeen aldeko eta kontrako golen aldea erabiliko da.

2.2.- Bigarren fasea

a) Bigarren faseko partiden % 70 gutxienez jokatzetik ez badago, baliogabetzat joko da, eta, beraz, behin betiko sailkapenei lehen faseko sailkapenak aplikatuko zaizkie, lehenengo faseko) puntuan zehaztutako irizpideei jarraituz, igogeretarako eta jaitsieretarako.

b) Talde guztiek bigarren fasearen % 70 gutxienez jokatzetik lortuko balute, baina denek ezin badute fase horren % 100a jokatu, koefizientearen irizpidea erabiliko da, hau da, jokatutako partiden artean lortutako puntu kopurua, fase honetako behin betiko sailkapenak zehazteko. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, aldeko eta kontrako golen arteko aldea erabiliko da.

Kontuan hartu beharrekoak:

- Jokatu ezin diren partidak Lehiaketa Batzordeak ezarritako data baino lehen berreskuratu beharko dira, bertan behera utzi diren hurrenkeran, ordena hori aldatu ahal izango da Federazioaren baimenarekin eta COVID-19tik eratorritako arrazoiengatik. Partidarik gabeko asteburuak edo jaiegunak kontuan hartzeko ahalegina egingo da.


- Konfinatuta egon den talde batek hurrengo partida jokatu beharko du, baldin eta konfinamendua asteazkena (barne) baino lehen altxatzen bada, ostegun eta ostiralean saioaren bat egiteko denbora daukala ulertuta.

- Klub bakoitzeko COVID arduradunak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Federazioari kasu positibo bat edo konfinamendu masibo bat duenean, kaltetutako pertsonen kopurua eta Osakidetzak konfinatutako pertsonen normaltasunera itzultzeko eman zaizkien epeak zehaztuz.

- Talde batek atzeratutako jardunaldiari aurre egin ahal izango diola ulertuko da dagokion taldeko federazioan izena emandako jokalarien % 70 gutxienez duenean.

Donostia, 2020ko urria

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General